Zergatik ez zen Etxahun poeta bilakatu? (Gorazarrea)

Patxi SALABERRI MUÑOA
UPV/EHU

Obra batzuk historiara igarotzen dira eta
beste batzuk ez, eta horrek ez du
objektiboki esan nahi lehenak
desagertutakoak baino hobeak direnik
G. Vattimo

0.- Sartaurrekoa

Pertsona baten bizitzarekin eleberri hunkigarri bat atontzea beti izan daiteke gure aitzinetik ibilia dena omentzeko bide egokia. Alabaina, gizaki guztion bizitzak ez du ematen ohiko nobela baten orri-kopurua betetzeko adina. Zorionez (ez baitut pentsatu ere egin nahi bestela zenbaterainoko bazka irakurrigabea izango zukeen pipiak liburutegietan!), gutxi baizik ez dira orri-kopuru dexentea nobelatzeko materia eskaintzen dutenak.

Piarres Topet dugu horietako bat, Etxahun bertsolaria, alegia.

Eta Jon Etxaide haren omenezko eleberria ondu zuena.

Eta *Joanak joan* –ba al da ez dakienik?–, bien arteko aitatasunak emandako fruitu ederra, ondoko orrialdeek mintzagai duten urtearen mendeurren betean erditua: 1953an.

Bien artean ehundutako literatur oihan hartan ibili izan gintuzten irakurleok, Malta ibarran gora, Malta ibarran behera, Iturribordara oraein, Otsoats-bordara gero... Piarresen istorioak harilkatu bitartean.

Baina, amaitutakoan, Piarresez jakin zitekeen guztiaren jabe ginela uste genuenean, hara non agertu zitzaigun Etxaideren eleberriak jasotzen ez zuen pasarte garrantzitsu bat, Etxahunen izenaren paperetaratzearekin lotura zuena eta haren literaturarako deiaren zapuztearekin zerikusirik izan zezakeena.

Ez, agerikoa zen, Etxaideren idazlanak ez zuen ezer esaten 1853an Urruñan, A. Abadiaren itzalpean, burutu zen lehen *phersuetaco guduaz*, ez eta hartan Etxahunek jaso zuen zafraldiaz. Arrazoia? Pasadizoari laburregi bezain munta txikiko zeritzolako donostiarrak, nonbait, laster 70 urte betetzera zihoan agure baten bizitzaren kapitulu oso baterako.

Eta ez da zalantzarik: laburregia da, bai.

Baina ez da falta garrantzitsua ere badela pentsatzen duenik, hagitz inportantea.

Horregatik, falta zen kapitulu hura osatu beharrean (nekez, dena den, Etxaideren maisutasunaz edota hark garatutako generoa baliatuz), gertaera haren garrantzia nabarmenarazi nahi dutenen ildoari heldu eta hura interpretatzen eman nahi genuke gure honako hau.

Lehendabizi, halere, pare bat oharño maltzur artikuluan barrena nabigatzean itsasorratza iparra markatzen manten dezagun.

Bat. Denok dakigu gure Etxaidek gipuzkeraz hitz eginarazi ziola gurea ere baden (zertxobait gutxiago, ziurrenik) Etxahun egoskorrari bere eleberri ospetsuan. Literatur errealismoak (oximorona ote?) gorabehera, ez dirudi "erdialde hurbileko" irakurlea besterik zuenik ikusmiran gipuzkoarrak.

Arraro samarra egiten zaigu, baina beste edozein literatur konbentzioren gisara, berdin onartzen ditugu barkoxtarraren *diat*ak eta *ziok*ak nola *dizkiat*ak, *zun*ak eta *zikan*ak. Are gehiago, erantsiko nuke, horietako batzuk oso harenak ez diruditen arren, gogo onez hartzen ditugu oro har, haren *zunikiek*, *zeiztaienek* eta *zuntienek* urduritze-punttuan jartzen baikaituzte berez.

Bi. Etxahunek inoiz ez zuen "erdialdeko" –zernahi delarik ere– hizkerarik ikasi. Behintzat ez dago horren lekukotasun fidagarririk.

1.- Aurre-hitza

Denbora eta arreta gehiagoarekin eta lupa hoberekin ikertzen hastea falta bazaigu ere, ezaguna da euskal literatur sistema bere osotasunean ulertzeko funtsezko diren aurretiko zenbaiten aztertzelana baraturik dugula oraindik paper horixken leize itzaltsuan. Halabeharrak aginduta, nonbait, baina baraturik.

XVI. mendearen erdialdekoak bide ditugu lehendabiziko obra idatziak eta inprimatuak eta, albisteek diotenez, XVII. mendearen estreinaldikoak gure literatur mekanismo kritikoen hastapenak. Ez, hortaz, oso zaharrak, ez eta atzo goizekoak ere, baina ilunetan dirautenak oraingoz, ilunbeak inarrosteko ordua aspaldi iritsia badugu ere, Hiribarrenen ustez.

Iruñerrian eta 1609 eta 1610ean izan ziren, guk dakigula, ezagutzen diren lehen poesi lehiaketa euskarazkoak[1] hain zuzen ere, bi mende eta erdi beranduago abian jarriko ziren Lore Joko gisako haien aurretiko *formal*tzat edo har litezkeenak. Esan nahi baita idazleak, obrak eta, nahitaezkoa zena, obrak –poemak– baloratu eta sariztatu zituzten *kritikariak* (epaimahaikideak, kasu honetan) eta *hartzaileak* (irakurle zuzenak zein zeharkakoak, hots, plazan bilduta, sariztatutako lanak belarriaren bitartez jasotzen zituen jendartea) biltzen zituzten egitura inolaz ere ez hutsalak edo ezteusak osatu zirela lehenengo aldiz euskal literaturaren fenomenoaren inguruan.

Ezin jakin daiteke, momentuz, une zehatz bateko tupusteko lorea izan ote zen harako hura edota, horrela izan ez bazen, noizdanik zetorren eta noiz arte iraun zuen praktika hark. Nolanahi ere, sistema literarioak ezin ahantz dezakeen zutarri interesgarria eta garrantzitsua da ordukoa; bistan da.

Ditugun eta ez ditugun lekukotasunez fidatuz gero, euskararen esparruko literaturak ez du, harrezkero, eta oso berandura arte bederen, horrelako gehiagorik dastatu, gure literaturaren historia obra

1 Urte haietako lehiaketaren antolatzaile, arau eta irabazle suertatu ziren olerkiei buruzko albiste zenbait in Mitxelena 1964: "Poesías premiadas en Pamplona en 1609" (111-118 or.) eta "Poesía premiada en Pamplona en 1610" (118-122 or.).

solte larregiz eta, maizki, irakurle gutxi eta oihartzun gutxiago izan zuten idazlanez eraikia baitago.

*Literatur aparato*rik gabe, obra askori (gehienei?) eskaini zaien estatus literarioa berandu etorri zaie eskuarki eta, horrezaz gainera, faktore extraliterario gehiegik bultzatuta edota, okerrago dena, hainbat interesek (sasikoak barne) behartuta. Eta hori, burua agertzeko eragozpen larriagorik ez zegoenean…

Adibiderik behar? Euskaldunok lehen poetatzat daukaguna (besteren batzuk ere izan zirela baizik ez dakigu) halabeharrez baino ez zen *nor* bilakatu, eta (o, bekatu larria!) frantses monarkia zaharrak bere liburutegian gordeta izan zuen ale bakartia ezagutzera eman zenean baino ez, hots, 1847an[2].

Bigarren poetak ere ez zuen tradiziorik ezagutu eta ez sortu, gorputz izan zitezkeen espirituen irlatxoan isolaturik egon baitzen luzaroan arima huts izanik, harik eta XIX. mendearen erdi aldean euskalariren bati sortu berria zen literatur erakunde gisakoa sendotzen hastea bururatu zitzaion arte[3].

Genero dramatikoaz eta narratiboaz hobe oihu lar ez egitea, *literatur sistema* delakoaren txalupak zulo gehiegitatik irentsi baitu ura gurean letra eta hizkien itsasoetan nabigatzen hastean. Eta ez ditugu mahairatuko, inor asalda ez dadin, euskal historiografiaren basamortuaren erdian, espejismoen antzera eta naturaltasun guztiarekin, laurogei bat urte haratago ikusten den lan dialogatu haren kasua, edota konderen bati eta beste hainbat kondenatu madarikaturi euskarazko obrak argitaratzea debekatzea iruditzen zitzaieneko kasu flagrante haiek. Berez normaltzeko aski zail zeukan literatur sistema baten flotazio-marraren erdi-erdian torpedeatzen zutenak, hain preseski.

---

2 Gustave Brunet izan zen, Francisque-Michelen gaztiguari esker, Etxepareren eta haren liburuttoaren berri eman zuena Bordeleko *Actes de l'Académie royale des Sciences, Belles Lettres et Arts* delakoan.

3 Oihenarten "aurkikuntzan" ere ezinbesteko erreferentzia dugu Francisque-Michel, nahiz eta iritzi eskasa izan haren poesiaz: "poëte, Oihenart es loin, ce me semble, de mériter un éloge en rapport avec celui-là (historialari gisa zegokionarekin konparatuta, alegia); mais peut-être un talent devait exclure l'autre" (1857: 1983, 456). Eskertzeko dugu, edonola ere, haren *Le Pays Basque* liburuak gure lehen hiru idazle klasiko nagusiei atal bana eskaini izana, hau da, Etxepareri (440-454 or.), Oihenarti (455-466 or.) eta Axularri (467-475 or.).

Izatekotan, dena den, pulpitoko literatura izan da nolabaiteko tradizioa eta sistematizazioa ezagutu dituen bakarra. Elizgizonen eskuetan zegoena eta, formalki bederen, argitaratze-debekuetarako ere zirrikitu ireki gutxien uzten zuena. Horrexegatik nonbait –eta hizkuntzaren garrantzi ideologikoaz oharturik zeudelako, eta euskaraz zebilkeen tradizio bakarra eraikitzen jardun zutelako, eta alfabetatuen eta astidunen zirelako, eta....– izan ziren haiek berak gero mende luze batez berezko esparrukoak ez zituzten generoen kontrola ere eskuratu zutenak.

Abadiak 1853an antolatutako literatur lehiaketetan behintzat haiek agertzen dira literatur antolamenduaren arduradun nagusi eta erabakitzaile. Zalantza izan liteke ea arrazoi berririk erantsi ote zitzaien laikoen esklusibokoa zirudien arlo batean ere protagonismoa hartzeko: agian, literatur lehiaketaren funtzioa gizartearen eta moral erlijiosoaren zerbitzu zuzenerako ikusten zutelako; akaso, elizatik at bazen ere, euskaldunon poema bihurtu nahi zukeen *Eskaldunak* haren aldarrikapen ilustratuaren ildo pragmatikoena jorratu eta baliatu nahi izan zutelako behingoz:

Iharrus, Eskaldunac, zuen ilhunbeac,
Abia ordu luke arguien mendeac.

Kontua da euskal gizarteak bazituela premia larriz zuzendu beharreko hainbat arlo desbideratu eta eliz-gizonek –literatur sistemaren atal erlijiosoa eraikitzen ari ziren haiek– hartan ere, irudiz bederen, "babesa" eskain zezaketela eta, orobat, "lagundu" ere nahi zutela. Aurreikusitako eginkizunak lirika eta herri-poesia bezain "prosaiko"-ak eta profanoak ziren esparruetan burutu behar baziren ere.

2.- Emigrazioaren drama ataizean

Arlo desbideratu nabarmen haietako bat, Francisque-Michelek jasotzen duen moduan, euskaldun gazteen emigrazio basatiari zegokion. Hego Ameriketan –Uruguay eta Argentinan bereziki– aberasteko irrika gero eta hedatuago zegoen euskal eskualdeetako jendearen artean.

Emigratuen kopuruak urtez urte areagotzen zihoazen eta, datuek diotenez, 1842rako 26.000 "frantses hiritar" zeuden Buenos Aires

eta Montebideoren artean, gehienak Iparraldetik joandakoak. Garai hartan Araba guztiko euskaldungoak osatzen zuena baino biziki komunitate handiagoa.

Ez zuen, bada, oharkabez jaurtiki Hiribarrenek 1853an honako bertso hau: "Zer da Montebideo? Eskaldun hiria". Eta horren erakusgarria da, hein batean bederen, handik berrogei bat urtera errepublikako presidentzia euskaldun baten eskuetan geratzea. Mendiagak kantatu bezala,

Presidentzialeko kaderian hor da;
Ohore handietan: Idiarte Borda.

Atzeraldi ekonomikoa eta zazpi urteko soldaduska derrigorrezkoaren presioa bide ziren gazteak Ameriketara abiatzeko arrazoi nagusiak. Hori eta, jakina, bertan berehala aberasteko espektatibak[4].

Eta, ohi bezala, ez zuten gutxi lagundu emigratuen erreklutamentuaren negoziotik urruti ez zeuden agintarien animo-hitzek eta mezu "fidagarriek"[5].

Esan gabe doa Ameriketara joandako eta joateko prest zegoen jendea Iparralde zabaleko gazteria zela nagusiki, bertako herrien ekonomia eta etorkizuna ziurta zitzakeen bakarra, laborantza-munduak normaltasunez irauteko ezinbestekoa zena. Herriak hustutzeaz aparte, gazteek alde egitean, haurrak, atso-agureak eta etsipena besterik ez zen geratzen etxe eta herri askotan.

Gizarte-arazoa latza, zinez. Eta gizartea laztasun haren zamapean bizi zelako ekin zitzaion hainbat esparrutan egoerari aurre egin ahal izateko neurriak hartzeari. Esparru politikoetan beranduago, eguneroko drama zuzenean jasaten zuten ingurune ilustratu eta erlijiosoetan lehenago.

---

4 Ezin hurbilago zegoen Biarnoko lurraldeetan ez zuten ezagutu Iparralde euskaldunak jasan zuen emigrazio erraldoia. Desberdintasun horren arrazoiei buruz ikus Michel 1857: 1983, 194-hk.

5 "Mes amis –idatzi zuen egunkarietan Baigorriko alkate-kidea zen Labarraque doktoreak 1835ean–, la France vous accompagne de ses voeux, mais sa vigilante sollicitude ne sera entièrement satisfaite que lorsque, dans dix années, elle vous verra tous chargés de vos économies descendre joyeusement sur nos côtes et saluer avec transport les doux rivages de la Mère-Patrie!" (Haritxelar 1970, 452).

1853ko *Pherxuetaco gudua,* A. Abadiak antolatutako bertso—lehiaketa hura alegia, hori besterik ez zen, izatez: euskarazko bertso- -lanik eta poetarik hoberenak sariztatzeko lehiaketa.

Gizarteak pairatzen zuen egoerak, baina, emigrazioaren dramari aurre egiteko bide ideologiko bat bezala ere plantearazi zuen lehiaketa.

Ordurako –lau hilabete lehenago, zehatz esateko–, emana zuen Bardozeko erretore zen J. M. Hiribarren azkaindarrak drama larri haren inguruko lehen gaztigua *Montebideoko berriak* poema luzearen argitarapenarekin[6].

Aurretik planifikatu gabe izan bazen ere (ez zaio inprobisazio-kutsurik falta), Urruñako lehiaketak, zegokion maila apalean, Hiribarrenen aldarrikapen idatzia sozializatzea bihurtu zuen xede. Bigarren xedea, esan nahi baita. Eta horretarako eta horregatik, xede literarioa eta xede soziala ikusmiran izanik, egin zien deia Euskal Herriko poeta euskaldun guztiei, ez, inoiz ulertarazi den bezala, muestrario dialektologiko aberastua lortzeko.

Eraginak eragin, espero izatekoa zen euskal poeta eta bertsolariek emandako fruituetatik etorriko zirela gero gazte eta familien sentsibilizazioa eta gizartean hedatu beharrekoa zen mezu haren hazkuntza eta zabalkundea.

Xede bien balio larriaz ohartzean legoke, erantsi beharrik ez dago, lehiaketan barrena hartuko ziren erabakiak ulertzeko gako garrantzizkoetako bat. Bai eta Etxahun bertsolari entzutetsua gudu hartatik poeta bilakaturik ez ateratzearena ulertzekoa ere.

3.- 1853ko *Pherxuetaco gudua*

1853ko agorrilaren 29an iragarri zuen azken aldiz Urruñako udalak hurrengo buruilaren 6ko *Eliza Besta*, jaietako ikuskizun nagusia izango zen pilota-partidura "Escual herrico çazpi partetarik" etor zitezkeen pilotari euskaldunek eta jendeak denboraz edo presta zezaten egun horretako egitasmoa.

6 Abisua ez ezik, bertso-guduan gara zitzaketen puntu nagusien erreferentzia ere eskaini zien Hiribarrenek zitezkeen lehiakideei.

Herriko etxeak kaleratutako esku-paperean pilota-partiduko kategoria desberdinetako sariak iragartzen ziren: erreboteko irabazleei 400 libera, galtzaile suertatu arren hoberena zen pilotariari 100 libera eta beste horrenbeste, azkenik, "pleicari Escualdun hoberenari".

Amaieran, hizki ezin txikiagotan jarria, honako oharra erantsi zen:

"Pilota partida baino lehen, içanen da goraki eçagut aracia pherxuetaco guduan garaia eraman duena, eta harc eguin pherxuac içanen dire cantatuac herrico guiçon gazte hortaraco berechi eta irakhaxiez, çoinekin aldizcatuco baita musicari gorphutz bat: eta ondoan, pherxuetan garaitu duenari emanen çaizco, Antonio D'Abbadie yaunaren partezco untçaco urrea eta ohorezco makila"[7].

Dena den, askoz ere lehenago iragarria zuen *Le Messager de Bayonne* egunkariak Urruñako bertso-gudua (ekainaren 9an hain zuzen), bai eta epaile izango zirenen izenak ere[8].

Aurreratu legez, bertso-guduan jorratu beharreko gaia gizarte-egoera latzaren erakusgarria izango zen: "les regrets d'un basque en partance pour Montevideo" edo euskaraz, gero Martin Egiategik aurkeztu zuen poemaren izenburuak zioen bezala, "Euskaldun baten bihotz-minak Montebideorat juanez".

Baldintzen artean argi zehaztu zen koplak edo poemak ezin zuela berrogeita hamar bertso-lerro baino gehiago izan eta, betiere, kantatzeko egokitua behar zuela poeman bertan adierazita agertu behar zen euskal aire ezagun batekin.

Esan gabe doa aski agerikoa zirudiela baldintzen xedeak: jende arruntak erraz ikasteko eta kantatzeko modukoa behar zuen pieza irabazleak, hau da, herri xehearen artean azkar hedatzeko eta oroitzeko modukoa.

Urkizuk jasotzen duen bezala (1997, 16), "bertsoak, posta ordaindu gabe Baionako Seminarioko Zuzendaria zen Harriet apezari bidali behar zitzaizkion, beranduenik abuztuaren 14erako. Ez zen kantarik batere saihestuko, eta epaileek gogoetan meritua bakarrik izango zuten kontutan eta nola hauek moldaturik zeuden".

---

7 Ikus P. Urkizuk ematen duen esku-orriaren argazkia (1997, 68-69).

8 Harrietek Abadiari ekainaren 3an igorritako gutunean zehaztu zen epaimahaikide izango zirenen zerrenda.

Azpimarratzekoa da lehiaketa-deiak Euskal Herri osora zabaltzeko erakusten zuen borondatea: "Nous invitons les Basques d'au-delà des monts à contribuer à ce concours national" (Haritselar 1970, 449). Lurralde guztietako jendeari egin zitzaion gonbita. Eta, areago, Zuberoa, Gipuzkoa edo Bizkaia bezalako lurraldeetako euskalkietan idatzitako poemak iristen baziren, aurreikusia zegoen tokian tokiko jende hautatuarengana jotzea epaimahaikideen laguntzaile izan zitezen.

Aurkezteko epea bukatuta, Harrietek Abadiari idatzi zionaren arabera, euskalki guztietako lanak agertu ziren: "Tous les dialectes ont fourni leur contingent et réellement il y a lieu d'être satisfait du résultat, malgré que, sous quelques rapports, il laisse à desirer" (ikus Haritxelar 1970, 462).

Handik eta hemendik jasotako 37 lanak, beraz, epaile izateko aukeratutakoen artean banatu omen ziren berehala, epaitze-lana burutzeko hiru aste eskas baizik ez baitzegoen.

Agorrilaren 23an igorritako gutunean honela deskribatu zion Harrietek Abadiari poema hoberena hautatzeko erabiliko zuten metodologia:

"J'ai distribué les chansons entre M. M. Duclos, Leremboure, Larralde, Hiribarren, Lissardy, Dassance, Goyetche: chacun a reçu son petit paquet sur lequel il choisira la pièce qui lui semble la meilleure; c'est un premier triage qui permettra de comparer ensuite sept à huit pièces seulement; cela abrège le travail. Je me suis avancé à dire à ces M.M. que M. d'Abbadie voudrait bien désigner un lieu et un jour convenable pour que M.M. les membres du jury qui le pouvaient se réunissent et décernent le prix de concert à la plus satisfaisante des huit chansons qu'un premier choix aurait distinguées parmi les autres. Il me semble que c'est le meilleur mode, sérieux en même temps et court; en tout cas il faut une réunion à plusieurs et quand bien même quelqu'un manifesterait son désir de voir toutes les pièces, elles seraient toutes représentées, devant être renvoyées par M. M. les membres du jury aussitôt, après les choix partiels faits" (Haritxelar 1970, 462-463).

Zorrotz nabarmenarazten du Haritxelarrek metodologiaren ahulezia, 30 bat poema bide ertzean geratuko baitzen epaimahaikideen

irizpideen arteko kontrasterik egin gabe eta bakoitzaren iritzi-usteetan oinarrituta.

Bestalde, hiru epaimahaikide kenduta, beste guztiak eliz-gizon ziren, horrek erakutsi izan ohi dituen, nola esan, jaidura korporatiboen arriskuekin[9]: Harriet bera Baionako apaizgaitegi nagusiko zuzendaria, Dassance katedraleko kalonjea, Hiribarren Bardoz-eko apaiza, Lissardy Hasparrengoa eta Goyetche, azkenik, Urruñako parrokoa.

Eliz-gizon ez ziren epaimahaikoak honako hiruak: Donibane Lohitzuneko Duclos, Leremboure abokatu baionarra eta Urruñako auzapeza zen Larralde-Diustéguy.

Metodologiari jarraikiz, pentsatzekoa da bosna poema inguru egokitu zitzaizkiela epaimahaikideei lehenengo iragazte-lana buru zezaten eta, bahetze horren ondorioz, bakoitzak poema bakarra eramango zuela hautaturik epaimahaikide guztien azken bilera erabakiorrera, zeinak jaiaren bezperetan erabaki behar baitzuen zein z(ir)en poema hoberena(k).

Azken bilera erabakior hartarako aurreikusia zen, apaiz falta balute bezala, gotzaiaren bikario nagusia zen Haranbururen presentzia eta, aldi berean, Abadiari eskainiko zitzaiola mahaiburu izateko ohorea (hura baitzen, besteak beste, lehiaketaren antolatzailea eta sariak jarri behar zituena).

Urruñako festa-egun nagusia irailaren 6an burutu zen eta orduan, pilota-partidua hasi aurretik, sariztatu zuten irabazle suertatutako bietatik bertaratu zen bakarra, Bernard Celhabe izenekoa hain zuzen (Zelabe, aurrerantzean).

Irabazleen garaipena pare bat egun lehenago eman zen jakitera *Messager de Bayonne* agerkarian, baina "Garaztarra" bezala izenpetu zuen beste irabazle ezezaguna ez zen sari-banaketara azaldu eta, hori zela eta, berez zegokion saria lehiakide ezagunari luzatu zitzaion.

Ondorioz, Bernard Zelabe bardoztarraren *Entzunik espantutan Indien berria*, "*Atharratze jauregian* &, edo *Mendian zoin den eder* &

9 Eta arrisku gehiago urte haietan Iparralde hagitz dikotomiko hartan, non hautu politikoak, sozialak, erlijiosoak eta kulturalak ezin hertsiago loturik eta, aldi berean, kontrastaturik baitzeuden.

edo bertze hanitz" aire jakinekin kanta zitekeena izan zen untzako urrea eta ohorezko makila, sari biak alegia, eraman zituena.

4.- Epaimahaiaren erabakia

Agerian da lehiaketa burutzeko Harrietek asmatu zuen metodologiaren ahuleziak nekez ekar zezakeela taxuzko fruiturik, alderantziz baizik. Izan ere, aski erabaki arbitrarioetara eraman zezakeen prozedura dirudi hogeita hamazazpi poemetatik, epaimahaikideen kontrastatu gabeko gustu (eta interes?) desberdinak tarteko, hogeita hamar lehen birundan deskartatzeak, epaile bakoitzak lau bat baztertu baitzituen beste inori irakurtzera eman gabe.

Susma daitekeenez, kasurik hoberenean "gogoko/ez gogoko" irizpidearen arabera jokatu zuten epaimahaikideek. Eta lehiaketaren xedea ikuspuntu morala literatur alderdia bezainbeste jorratzea zutela jakinarazi bazuten ere[10], eskuetara iritsi zaizkigun piezek argi erakusten dute moralaren esparruan ez dela desberdintasun nabarmenik agertzen. Poemen arteko aldeak, beraz, agertzeko eran zeutzan soilik, hau da, era literario(ago)an, erretoriko(ago)an, liriko(ago)an, oihesean, narrasean, zabarrean... edota –aieru okerra gurea!– aurrerago azalduko diren bestelakoetan.

Nolanahi ere, gelditu diren lekukotasunei erreparatuz gero, aski agerikoa da ez zela erabateko irizkidetasunik gertatu poema irabazlea erabakitzeko orduan.

Kezkatzekoa da, esaterako, Urruñako apaiza zen Goietxeren erabakia. 1855eko urrian, osasu-arazoak aitzakiatzat jarriz, aurrerantzean ez zuela epaimahaikide gisara parte hartuko jakinarazi zion Abadiari. Halere, hemen interesatzen zaigun beste arrazoi interesgarriago bat ere erantsi zuen, hots, ez zela "epaia kontzientziaz emateko gai" sentitzen[11] (Urkizu 1997, 19). Susmoen ildoan jar gaitzake arrazoi horrek ere, zeren eta, apaiza izanik, ez baitirudi horretarako arazorik etorriko zitzaionik epaitu beharreko lanen moralaren perspektibatik: zeukan lanbidearekin batera zihoakion balorazio moralaren

10 Ikus Urkizu 1997, 16.

11 Egia zenentz frogatu gabe, lehiaketan gaitzizenarekin aurkezteko asmoa antzeman omen zion Duvoisinek erabaki hartan.

kalibrea. Kontzientzia-arazorik izatekotan, literaturaren ikuspegitik begiratuta izango zituen batik bat, poemen kalitatea erabakitzeko unean, poemarik hoberena hautatzeko garaian sortutako zalantzek piztutakoak[12].

Epaimahaiaren eta epaimahaikideen sentsibilitate-aniztasunaz (subjektibotasunaz zein zabarkeriaz) hitz egin lezake horrek, noski, baina ez irizpide garbiez eta bateratuez.

Guztiarekin ere, euskaldunen emigrazioaren gaia beste inork baino luzeago jorratua eta argitaratua zuen Hiribarrenen lekukotasuna dugu epaimahaikideen irizipideen "egokitasunaz" argien mintzo dena. Abadiari 1855ean idatzitako gutun batean, aurreko iraileko lehiaketan erabakitakoa zalantzan jarri zuelarik, 1853koan hartutako erabakia ere mahairatu zuen modu ezin kritikoagoan:

"L'an dernier (1853an, hain zuzen), en pleine place, j'eus le courage de vour dire qu'il n'y a avait aucune comparaison entre les pièces de Celhabe et du Garaztar et le public approuva mon jugement. Pas de prix de complaisance; c'est se jouer du public et perdre sa confiance" (Haritxelar 1970, 464).

Eta honela enfatizatu zuen jarraian: "Dieu sait ce que j'ai entendu au sujet du jugement de l'an dernier, et l'on n'avait pas toujours tort" (*idem*).

Erantsi beharrik ez dago: Hiribarren ez zetorren bat 1853ko lehiaketan emandako sariarekin eta, are okerrago zena, ezin garbikiago azpimarratzen zuen jendearen desadostasuna epaimahaiak erabakitakoarekiko. Oso erabaki eztabaidatua eta kritikatua izan zen, Hiribarrenek zioenez.

Eta, haren kriterioen sendotasuna zalantzan gera ez dadin, berriro nabarmenarazten dugu epaimahaikide guztien artean *Eskaldunac*-en egilea zela lehiaketako gaia literarioki zein moralki gehien eta sakonen pentsatua eta jorratua zuena[13].

---

12 Ez da ahaztu behar epaimahaikoen artean literatura lantzera ausartua zen bakanetako bat izan zela Goietxe, eta argitaratu berria zuela bere *Fableac edo aleguiac* liburua (Baiona, 1852) Urruñako lehiaketarako epaimahaikide hautatua izan zenean.

13 Gorago adierazi den legez, *Montebideoco berriac* poema luzea, *Eskaldunac* bezalaxe, 1853an kaleratu zuen Jean Martin Hiribarrenek; Urruñako "Pherxuetaco gudua" baino hilabete zenbait lehenago edonola ere. Lehendabizi atalka ikusi zuen argia maiatzaren 12tik 31ra bitartean *Le Messager de Bayonne* izeneko egunkarian; gero, urte berean baina liburuxka gisa, Baionako Foré eta Laserre etxean.

Baina gauza harrigarriagorik ere esaten du Hiribarrenek Abadiari zuzendutako gutunean, hots, 1853ko lehiaketan beste hamar pieza baino gehiago zeudela Garaztarrarena baino hobeak: "Il y avait au concours plus de dix pièces qui l'emportaient sur celles du Garaztar" (Haritxelar 1970, 464).

Hitz horietatik hiru ondorio, gutxienez:

— lehena eta agerikoena, ez zela aho batezkoa izan epaimahaikideen artean hartu zen erabakia;

— bigarrena, bazirela beste zenbait poema gaiaz eta, nonbait, literaturaz ere gehiago zekitenentzako gogokoago zirenak; eta

— hirugarrena, Hiribarrenek bederen ofizialki mahairatu ziren zazpi-zortzi poema hautatuak baino gehiago ere irakurri zituela, guztiak akaso.

Eta ausartuko ginateke haren hitzetatik beste ondorio orokorrago bat ere ateratzen, hots, Hiribarrenen balorazioa beste inorena baino sendoagoa dela eta, horren guztiaren arabera, haren kritikaren pisua ere gainontzeko garaikideen uste eta aieruena baino baliotsuagoa, zalantzarik gabe.

Francisque-Michelena baino baliotsuagoa bai behintzat, ez baitirudi azken honen apreziazioarekin urrunegi joan litekeenik taxuzko kritiken ildoan. Itxura guztia du, izatez, sariztatutako idazlan biak eta beste bat gehiago baizik ez zuela ezagutu Michelek aurkeztutakoen multzokoak[14]. Muestrario labur harekin, dena den, Garaztarrarenari

14 Michelek bakarrik jasotzen duen *Pulunpa* izeneko poema dela eta, baliteke beste nonbaitetik eskuratua izatea, ez baitirudi, Montebideoko emigrazioaren gaia jorratzen duen arren, 1853ko lehiaketan aurkeztua izan zenik. Eta hipotesi hori sustatzeko Michelen hitzak berak erabil litezke: "nous ne parlerons que des morceaux de *poésie composés presque tous en vue des prix fondés par M. Antoine d'Abbadie*, morceaux dont nous donnons *les meilleurs*" (Michel 1857:1983, 340; gurea da letrakera etzana). Eta azpimarratzen dugu "presque tous" hori, izan ere, lau pieza ematen ditu jarraian eta, *Pulunpa* izeneko hau kenduta, beste guztiak lehiaketan aurkeztutakoak dira: Zelabe, "Garaztarra" eta Egiategi-renak, hain zuzen. Nolanahi ere, garbi utzi nahi du *Pulunpa* delakoak ez duela balio poetikorik, haren ustez euskaldunen emigrazioak dakartzan zorigaitzen zerrenda baino ez baitu eskaintzen: "*Aucune mérite poétique ne recommande la dernière pièce*; c'est une complainte qui n'en a d'autre que d'achever le tableau des malheurs qu'entraîne l'émigration des Basques" (Michel 1857: 1983, 341; gurea da letrakera etzana). Bidenabar esateko: ez da ondo ulertzen zergatik kokatu zuen "les meilleurs", hots, hoberenak zirenen artean, hain txarra bazeritzon.

oso poema ederra iritzi zion eta, jarraian eransten zuenez, eskoziar balada ospetsuren bat ere gogorarazten zion[15].

5.- Etxahunen erreakzioa

Iratzeder izan zen, oker ez bagaude, Etxahunek "minez, maitez, errabiaz" egiten zuela bertsotan esan zuena. Eta ez dugu uste arrazoi osoa izateko asko falta zitzaionik.

Nekez aurkituko da haren bertsoetan pasioen edo, nahiago bada, apasionamenduaren esparrutik aldentzen den lerrorik. Iratzederren hiru hitz horiek dira, zalantzarik gabe, barkoxtarraren ekarpena ongien definitzen dutenak.

Eta, ezin bestela izan, hitz horiexek izan ziren Urruñako lehen poesia-sariketako erabakia kaleratutakoan Etxahunek ehundutako erantzunean ezin bortitzago jaso zirenak: mina, maitasuna eta errabia.

Mina, Euskal Herriko eta Euskal Herriaren poeta edo koplakari "homologatu" gisa azaltzeko galtzen zuen aukera errepikaezinagatik.

Errabia eta amorrua, ofizioa ezagutzen zuenarentzat erabakia zeharo arbitrarioa, interesatua eta, amarruak tarteko, manipulatua ere izan zelako, eta, areago, ustezko bidegabekeria hark, aurretiaz izan zitzakeen espektatibetatik aldentzen zuelako betiko.

Eta maitasuna, –nola adierazi?– eginkizun poetikoa zuelako Etxaunek bihotz barreneko grina nagusia.

Oihu bortitz eta amorratu haren bitartez, ezagutzen zuen poesiarekiko maitasunaz mintzo zen haren bihotz mindua.

1853ko lehiaketa hura irabazi izan balu (barka bekigu kontrafaktual azientifiko batez baliatzea), handik mende laurdenera Arrese-Beitia otxandioarrak Elizondon eskuratu zuen poeta ofizialaren estatusa lortuko zukeen Etxahunek Urruñan.

---

15 "Est fort belle et mériterait bien qu'on lui consacrât quelques lignes; c'est vraiment une composition, et l'art n'y a point fait disparaître la naïveté. En la lisant, on se rappelle le début d'une ballade écossaise recueillie par Sir Walter Scott, ou plutôt celle de Casimir Delavigne qui commence ainsi [etab.]" (Michel 1857: 1983, 340).

Baina ez zen hala gertatu.

Eta ez zen gertatu, Etxahunen iritziz, lehiaketa-erabakietan maltzurkeriaz jokatu zuelako epaimahaiak.

Eta, dirudienagatik, ez zegoen egiatan gertatutakotik urruti.

Haren kritika, ezaguna da, *Bi berseten eguitez* izenarekin iritsi zitzazion Harriet antolatzaileari. Kontserbatzen den kopia ez bide da Etxahunen eskutik sortua, besteren batek egindakoa baizik, baina, zertxobait aldatua edota egokitua izan bazen ere, barkoxtarraren samintasun guztia gordetzen du.

Gertakaria didaktikoki orokortu eta karikaturizatu nahian nonbait, kritikaren muina epaimahaikide ziren apaizei[16] zuzendu zien Etxahunek lehendabizi, haiei guztiei eta haiei bakarrik[17].

Honela du hasiera edo, nahiago bada, erasoaren fokalizazioa[18]

Bi berseten eguitez nahi dut khountatu
Apphecec noula tien coblaric troumpatu

Behin hori eginda, apaizekin segituko du bigarren eta hirugarren ahapaldietan ere, epaile izateaz gainera, bertso hoberenen ebasle ere izan zirela esanez eta, ondorioz, sariaren "irabazle" ere:

---

16 Etxahunek ongi zekien nolako estimutan zeuden apaizak Euskal Herrian. Haietaz zuen inpresioa ez zen, oro har, Hiribarren une hartan zirriborratzen ari zen *Eskaldunac* liburuan agertuko zuenetik lar aldenduko (ikus 1853:1979, 195-199):

Eskaldunec apheza goraki maitatzen,
Nihori gehiago ohore bihurtzen;

Iritzi-dibergentziarik izatekotan, honelakoetan edo:

Munduan guti nahi bici hec bezala

17 Alabaina, gauzak bere neurrian kokatzeko, zitalkeria apaiz batzuengandik bakarrik etorri zitzaiola nabarmenarazteko eta, nola ez, bertsoei ohiko zuen biribiltasun zorrotza eskaintzeko, amaierako ahapaldian argi utzi zuen "net maite" zituela benetako apaiz zirenak, zuhur, bertutetsu eta debotoak zirenak, hain zuzen:

Berset hoiec eguin tut jaun apphecen countre,
Nahi bada debotac dutudan net maite:
Bena arropa houra dinac behar luque
Erhokeriac utsi, ukhen qualitate,
Mundiri eracoutsi ukeiten berthute.

18 Larrasqueten bertsioak puntu interesgarri zenbait dituen arren, hemen aldaketarik gabe erabiliko dugu Haritxelarrek emandakoa (1970, 458-460).

Bersoulariac oro guinandian ari
Kanthore composatcen, nahiz prima hori.
Appheçac beikuntian guero hen jujari;
Goure berset hobenac hec beren eçari,
Eta hitzaman prima eraman gouri.

Jaun apphez abill hayec cer dire pphensatu?
Gouri hatzaman koblac besteri ceditu:
Intertan hec hatzaman ordian bi pphaku
Uscal herico lehen poeta famatu
Secula bersebat ecindina formatu.

Iritsi zaizkigun albisteak oinarri, badirudi epaileen artean gertatutakoaren informazio aski zuzena zuela Etxahunek[19]. Akaso apaiz ez ziren epaimahaikoen aldetik bideratua, hiru laiko haientzat ez baitago ez eztenik, ez gezirik, ez ozpinik. Ez dugu informazio-iturri(ar)en berririk, haatik, eta zail da susmo hutsekin taxuzko ezer osatzen.

Nolanahi ere den, informazio-hari interesgarria da Hiribarrenek[20] utzitako oharra: "il y a un autre juge plus hardi qui corrige les vers et les remplace souvent par d'autres qui sont faux. Ainsi, l'an dernier, il gâta deux strophes de M. Celhabe; il en remplaça une par des vers faux et l'autre par une strophe priante" (ikus Haritxelar 1970, 465).

---

19 Nola ez dakigula, Etxahunek ba omen zekien, jakin, nor zegoen "Garaztarra" ezizenaren atzean. Aierua sustatzeko gakoa laugarren ahapaldian legoke:

Prima eraman duçun jau apphez adreta
Eta çu famaturic eçari poeta,
Ciberouco harequin ez koblakan jokha
Eci hourac estira cirequin gal lotxa,
Bacinandie ere biac Archipretra.

"Depuis le concordat de 1801, la cure de Mauléon suppose que son détenteur est archiprêtre. Etchahun savait très bien à qui il s'adressait. L'abbé Landerretche, curé de Saint-Palais de 1837 à 1845 fut nommé archiprêtre de Mauléon en 1845" (Haritxelar 1970, 468).

20 Lhandek eta Larrasquetek susmo larria erakutsi zuten Zelaberen poemaren egiletzari zegokionez, "errudun" samarra ikusten baitzuten Hiribarren (oinarri gehiegirik gabe, antza denez): "nous croyons que l'abbé Hiribarren n'était pas étranger à la composition du lauréat; il était alors curé de Bardos, et versificateur intrépide" (Lhande eta Larrasquet 1946, 71 or., 11 oharra). Baina Lhande eta Larrasqueten susmo horrek, bistan da, poemaren hasierako egiletzara eramango gintuzke, poema ontzeko orduan Zelabek izandako ustezko laguntzailearengana, eta ez gero, aurkeztu eta irabazle ateratzeko epaimahaian izan zuen ukituaren autorearengana.

Hau da: ba omen zen epaimahaikide bat oiesak iruditzen zitzaizkion bertsoak aldatu egiten zituena eta 1853ko lehiaketan Zelaberen poemari bi egokitzapen egin zizkiona: ahapaldi ezezagun bat osorik aldatu zuen berak asmatutakoak jarriz, eta, oharrean iradokitzen denez, otoitz moduko azken ahapaldia ere (poemak duen "strophe priante" bakarra) epaimahaikide berak idatzia da eta jatorrizkoaren ordez jarria:

Urrun, Jauna, nigarik, othoi, zorigaitza
Hustua kausitzeko aita-amen egoitza!
Aitzitik egidazu bihur nadin laster,
Eta goza ditzadan luzaki zuri-esker.

Nonbait, epaile "ustela"-ren ustez, poema batek ezinbestekoa zuen amaiera biribila, eta are gehiago irabazle izan behar bazuen.

Eta agian "trukaketa" hori onartu zuelako bideratu zuen Etxahunek hain bortizki bere gezi garratza Zelaberen aurka, amarru horretaz jabetuta egon arren "Uscal herico lehen poeta famatu" bilakatzeko ohoreari uko ez egiteko kapaza izan zelako:

Celhabe Bardoceco apphez arnegata,
Apphecec goure coblac çouri eman eta
Jari içan cira coblarien aita

Azken kritika gogorra, dena den, Harrietentzat da, bertsogintzaz berak bezala zekien batek, eta epaimahaiaren *factotuma* izanik, ezin baitzuen jokatu jokatu zuen moduan: arbitrariotasunez, objektibitatearen aurka, koplakariei inolako bermerik eskaini gabe eta, bekaturik larriena eliz-gizon eta apaizgaitegi nagusiko burua zen batentzat, adiskideen interesak guztien gainetik jarriz.

Harriet çu cirade seminarin jabe,
Bena etcirade houn coblarien juge.
Jujatu beitutuçu çuc bersetac hobe
Chainkhu cirenac, arrimurik gabe,
Hen eguilic beitsiren çoure adiskide.

Egia da, halaber, "basa-kopletan" zihardutenkoplakariek ez zutela inolaz ere espero apaizek ere parte-hartuko zutenik printzipioz haientzat, laikoentzat alegia, zuzenduta zirudien "pherxuetaco gudu" batean.

Eta, beharbada, horretan datza Etxahunen kritika-punturik ahulena, apaiz gorrotagarrien aurka ziharduela eta, ez baitzuen onartu nahi izan haien artean ere egon zitekeela "basa-kopla" egokiak ondu zitzakeenik. Baina, guztiarekin ere, ezin da ukatu bestelako interpretaziorik ere izan zezakeela Etxahunek apaizen giza-kondizio arrunta salatuz idatzi zuen ahapaldiak:

Jaun apphez baten da hanitch itchoussi
Bassa kopla hountcia urguillia gati
Kantica eguitia liçate hen propi.
Hartaco baçunie espiritu aski
Ordian çunikie bai prima merechi

6.- *Pherxuetaco guduan* irabazleak

Ofizialki, 1853ko bertso-lehiaketan Bernard Zelabe eta "Garaztarra" ezizenarekin sinatu zuena izan ziren irabazleak, Zelabe *Entzunik espantutan Indien berria* izeneko poemarekin eta "Garaztarra" *Nahi nuen kantatu* izenekoarekin.

Hortaz, Zelaberi *untzako urrea* egokitu zitzaion eta Garaztarrari *ohorezko makila*.

Baina, gorago aurreratu bezala, irailaren 4an, prentsan iragarritakoan, *ex aequo* modura banatzeko zirudien sari pare hura irailaren 6an, asteartean, irabazle bakar baten eskuetara igaro zen, "Garaztarra" izeneko egile anonimoak, ekitaldiaren solemnitateari nolabaiteko mespretxua eginez, ez baitzuen bere burua ezagutzera eman[21] Hori

21 Anton Abadiari zuzenean egindako mespretxutzat har zitekeen itsuskeria hura eta pentsatzekoa da horrela hartu zutela bertaratu ziren agintari politiko, erlijioso eta kulturalek. Abadia jauna, gogora bedi, ez zen aberats karitatibo huts bat. Honela irudikatu eta laudatu zuen Hiribarrenek hurrengo hilabeteetan argitaratutako *Eskaldunac* lanean:

Benedicatzeco da d'Abbadie yauna,
Laphurdico yendea muguitu duena.
Urriña bazterrean hautatuz egoitza,
Hedatzen du herrian eskas cen ihintza;
Harc du abiaraci berritan pilota,
Mendez mende Eskaldun guraco yosteta;
Eskara ere luke nahi beguiratu,

zela eta, lehiaketaren arduradunek, azken unean, untzako urrea eta bai ohorezko makila Bardozeko Zelabe gazteari ematea erabaki zuten.

Eta, horrela, 1853ko *pherxuetaco gudu*an Zelabe geratu zen irabazle literaturaren historiarako eta "Garaztarra", saririk gabe, bigarren.

Luze mintza liteke lehiaketara aurkeztu eta garaile gertatu ziren bi poemoi buruz. Are luzeago, jakina, irabazle suertatu ez arren, aurkeztu zirenak aztergaien multzoan sartuz gero. Alabaina, aurkeztutako 37 piezatatik dozena erdia baino ez zaigu egunotara iritsi, tamalez.

Horrek, noski, ezinezko egiten du lehiaketaratutako poemen arteko erkatze-lana eta are ezinago Hiribarrenek esandakoak kontrastatzea (Garaztarrarena baino hobeak ziren hamaika poema gehiago zegoela, etab.).

Ikusi dugu (Hiribarren *dixit*) Zelabek aurkeztutakoa, esaterako, erdi moldatua utzi zutela epaimahaian bertan, tarteko estrofa bat aldatuz eta, prezeptiba erretorikoak dioen moduan, kaskarra zen pieza bati ere inpresio ederra eman ziezaiokeen amaierako ahapaldi ziztrina kenduz eta biribilago zen beste bat erantsiz.

Jakina, lehiaketak bilatzen zuen efektu sozialerako eta pedagogikorako zilegizkoa izan zitekeen kanbalatxea.

Egileen ikuspuntutik, ordea, larria baino larriagoa gerta zitekeen jokaldia, arrazoiak arrazoi, lehiakideen fede ona, eskubideak eta zor zitzaien epai-neutraltasuna bera kareletik behera botatzeak ez baitzirudien onargarriegia.

Erdara zaionean abantzu nausitu.
Eskaldunec ez dute achkide hoberic,
Izaria eman du untza horitaric

Eta aurrerago:

Yaun hori aiphatzen dut Laphurdin delacotz,
Eta eguiac ere nahi duelacotz
Ondoan yakitea, nola Eskalduna
Maitatu izan duen, guciz guehiena.
Ohore Eskaldunec horren achkidantza,
Erreguekin badauca letrazco hizcuntza:
Badaki Laphurtarrac denaren prezatzen,
Bere lili bezala dio beguiratzen.

(Hiribarren 1853:1979, 126-128)

Edonola ere, barne-kontu hura, beti bezala, burututako "bekatua" publiko izatera igaroz gero baino ez zen arazo bihurtuko... eta, gauzak zeuden bezala egonik, inork pentsa zezakeen hitzeko zaldunen artean *omertá*ren legerik beharko zela?

Trikimainak barreiatuak izan ala ez, aski iritzi kontrajarriak sorrarazi zituzten sarien inguruko erabakiek eta, batik bat, sariztatutako poemen kalitateak. Francisque-Michelek, adibidez, hitz hauekin agortu zuen Zelaberen poemari buruz zeukan aburua: "La[...] pièce, ne faut-il pas le faire remarquer? *est du français traduit du basque*. On entend de reste ce que je veux dire. Rien n'empêche un enfant des Pyrénées, qui a vécu vingt ans à Paris, de revenir faire des vers basques dans la Soule ou dans le Labourd; mais il n'y aura plus dans ces vers d'originalité véritable" (Michel 1857: 1983, 340-341; gurea da letra etzana). Alegia, frantsesez asmatua eta euskarara igaroa zeritzon lanari, euskal senik gabekoa eta egiazko originaltasunaren falta zuela.

Etxahunenari falta ez zitzaizkion ezaugarriak, bidenabar eta parentesi artean esateko.

Bigarren geratu zen *Nahi nuen kantatu* poemari, ordea, oso ederra zeritzon F. Michelek, eta eskoziar baladaren bat gogorarazten zuela erantsi zuen jarraian: "est fort belle et mériterait bien qu'on lui consacrât quelques lignes; c'est vraiment une composition, et l'art n'y a point fait disparaître la naïveté. En la lisant, on se rappelle le début d'une ballade écossaise recueillie par Sir Walter Scott, ou plutôt celle de Casimir Delavigne qui commence ainsi [etab.]" (Michel 1857: 1983, 340).

Distantzia zuhurretik begiratuta, zalantzazkoa da ea Michelek[22] zeritzon bezain perfektua eta ederra ote zen Garaztarraren lana.

---

22 Ez ditugu orrialde hauetara ekarriko 1853ko lehiaketan aurkeztu ondoren, egun oraindik irakur ditzakegun beste hiruzpalau poemak. Edonola ere, Francisque-Michelen iritziekin ari garela, ez genuke ahantzi nahi aipatu hiruzpalau poema horien arteko dugun Martin Egiategi-ren *Eskualdun baten bihozminak Montebidoerat juanez* izenekoaz Iyondarrak dagien balioespen aski positiboa: "La [...] pièce [...] me paraît *assez remarquable* par la poésie du sentiment, sinon par celle des images. Elle doit nous intéresser aussi par l'élévation de son but moral. En la lisant, je me suis rappelé le Taitien de Bougainville, qui, dans le cours de son voyage en Europe, mettait en strophes cadencées tout ce qui le frappait, espèce de récitatif obligé qu'il improvisait" (Michel 1857: 1983, 340; gurea da letrakera etzana).

Egia da horrelako poema batetik espero daitekeen topiko multzoa modu efektiboan eta eraginkorrean jarrita azaltzen dela bertan, eta estrofa labur eta ikasteko errazetan multzokatua agertzean, lehen begiratuan behintzat, korte berria erakusten duela ohiko bertsolaritza-moldeekin konparatuz gero. Mailu hunkigarriaren efektua lortzeko estrofen amaierako lelo errepikakorrak ere biziki hurbilarazten du poema abestien arlora.

Dena den, garatu beharrekoa zen dramaren estilizazio hutsalak, gaiaren larria azaltzeko moldearen egokiezak, eliz kantiketatik hain hurbileko parametroek, bertsoen neurriak egokitzeko amarruek, errimaren inkonstantziak, baliabide erretorikoen gehiegizko presentziak, estrofen inpresionismoak eta –*avant la lettre* bazen ere– poemaren *pastiche* itxurak berak[23] ere nekez ase zezaketen tradizioan erroturik bizi zen bertsoen munduko sentsibilitatea. Ezta Etxahunena, ezta Hiribarrenena berarena ere.

Bizpahiru lorpen edo kenduta, zirtzila zen "Garaztarra"-ren izenpean Landerretxek burututakoa[24]. Eta, ildo horretatik, logikoa ere bazen egilea sari-banaketan azaldu ez izana.

Baina, esan bezala, laburra, erraz kantatzekoa, errazago gogoratzekoa eta, guztien gainetik, zeharo efektista eta begi-engainagarria gertatzen zen ofiziotik kanpokoentzat.

Zalantzarik gabe, Etxahunen *Montebideorat juailiak* poemak hamaika buelta ematen zien guztiei dramaren tratamendu poetikoan eta moralean. Non, esaterako, zein poematan, modu larriagoan eta finagoan, aurki daiteke prostituziora behartutakoen tratamendua, esklabu sentitzearena, gazteak frantses armadatik ihesi zihoazela, azkenik beste armada batean "lurreratu" behar izatearena? Hori guztia eta engainu basatiarena, pasaierketarien moralitate ezarena, gurasoen sufrimenduarena, haiek beharrezko zuten guztia seme-alabengatik ematearen drama…

Oro sentimentu eta emozioetatik eraikia, oro irudi eta forma beteginetan emana, oro era sarkorrenean aurkeztua.

---

23 Ahaztu gabe poemaren izenburupeko haurkeria, hau da, frantsesez idatzitako epigrafe hura, poemari zor zitzaion tonu gaitza zeharo hondatzen zuen berbera (Urkizu 1997, 70 orrian baino ez dugu aurkitu delako epigafe hori).

24 Duvoisinek utzitako ohar batean oinarritu izan da Mauleko apaiza zen Landerretxeren ustezko egiletza.

Horixe eskaintzen zuen Etxahunek bere poema saritu gabean.

Eta zinez diogu, Etxahuni zuzen egingo bazaio, ez litzatekeela mahairatzen ari garen hau subjektibismo hutsaren zitu ustel gisa edota azken orduko errebindikazioren baten fruitu hanpatu modura hauteman behar.

Poemaren azalean itzalen bat antzeman izan arren (sarrera-bertsoaren hutsala[25] eta zenbait errimaren ahulezia), Larrasquetek ere goi mailako balorazioa egiten du *Montebideorat juailiak*-ek islatzen dituen poesia-senaz eta etorriaz, bertsoak ontzeko antzeaz, eta, berezi-bereziki, azken hiru ahapaldietatik isurtzen den edertasun hunkigarriaz: "Ce sujet, mis au concours, Etchahun l'a traité avec sa maîtrise connue. Tout au plus faudrait-il, si l'on désirait une critique vigoureuse, noter la *faiblesse de quelques rimes*, *assez rares* d'ailleurs, et la *banalité du premier vers* qui sert d'introduction. Ces ombres, bien légères, *trouvent une magnifique compensation dans la qualité de l'inspiration, dans quelques vers bien frappés et la touchante beauté des trois dernières strophes*" (Lhande eta Larraquet 1946, 68; gurea da letrakera etzana).

Eta, areago, honakoan ere, Lafittek zioen moduan, ohiko estilokoak ditu bertsoak: "bildu, tinko eta beteak; hitz alfer guti, luzagai gutiago; eta ateraldia tiroa bezala heltzen bere jo bururat" (Lafitte 1970: 1990, 182).

Hori guztia eskaintzen zuen Etxahunek bere poema saritu gabean.

Baina –ohikoak bide ditugu adbertsatibo gramatikalak eta adbertsitate faktualak– zubereraz idatzia zegoen haren *Montebideorat juailiak*.

7.- *Pherxuetaco guduaren* irakaspenak

Eta berriro azpimarratu nahi genuke konstatazioa: Etxahunek aurkeztutako bertsoak zubereraz idatzita iritsi ziren Urruñako *pherxuetaco gudu*ra, halaxe sortu eta ondu baitzituen bardoxtarrak.

25 Lehen bertso horren apreziazioa dela eta, egokiagoa eta errealagoa da Haritxelarren iritzia: "le premier vers commence d'une manière traditionelle" (Haritxelar 1970, 453), tradizioan ezarritako hasiera-mota baita Etxahunek hor darabilena.

Eta berriro azpimarratzearena ez da gure apeta edo gurari hutsagatik, beste zerbait garrantzitsuagoagatik baizik. Izan ere, Abadiaren bertso-guduak Hegoaldera igaro artean, lehiaketetan inplizituki markatu eta finkatu zen jokamoldeak ezaugarri interesgarri zenbait atera zituen azalera, besteak beste, poemetan erabilitako hizkuntza-motari zegokiona.

Luze joko luke hemen ezaugarri guztien harilketa egiteak. Alabaina, garrantzitsuenei heldu nahi genieke ondoko lerrootan, labur antzean bada ere.

Urteetako kasuistikari metodologia induktibo trauskilena aplikatuta ere, aski argi frogatzen da 1853tik 1878ra bitartean burututako *pherxuetaco gudu*ek, hasieran eta teorian koplakarien ereduaren arabera antolatuak izango zirela iragarri eta ulertarazi zen arren, praktikan, paradoxikoki, beste norabide bat hartu zutela.

Alegia, antolatzaileek lehiaketari jarritako izenburuaren esanahia ahaztu gabe ere (zer izan zitekeen, bestela, *pherxuetaco gudua* bertso-tradizioaren esparruko lehiaketa bat baino?), ez dirudi Abadiak idatzitako hark ("les juges ne seront guidés que par l'appréciation du mérite des pensées et de la manière dont elles seront rendues") bertsolaritzaren mundutik kanpoko teknikez eta ereduez pentsaraz ziezaiokeenik lehiaketan parte hartu nahi zuenari.

Ez da ahaztu behar, gainera, Abadiaren *gudu* haiek oraindik "erakundetu" gabe zeudenean (1851n eta 1852an, hain zuzen), bertsolariak, hots, bertsolari-bertsolariak izan zirela nagusi: Oxalde lehen urtean eta Halsouet eta Oxalde hurrengoan.

Baina "erakundetu" ondoko praktikan, esan bezala, beste norabide berri bat hartu zuten, agerian geratu baitzen hesia jartzen zitzaiela bertsolari-koplakarien presentziari eta oihartzunari kultutzat zituzten esparruetan.

Praktikan, beraz, zeharo mugatua azaldu zen koplakarien ordura arteko "monopolioa"; *guduak* abian jarri ziren lehen unean bertan, gainera.

Hortik, bertsolariek jaso zuten ezustekoa eta harridura.

Etxahun bezalako bertsolari ospetsuen lanak sarietatik at uzteak hurrengo urteetan hedatuko zen jokamoldearen lehen iragarpena

baino ez zuen ekarri. Eta sumatzekoa da bertsolari gisa ziharduten gehienak, behin lekzioa ikasita, ez zirela berriro aurkeztu guduetara, batik bat aipatu eztabaiden eta bereziki barkoxtarraren *Bi berset eguitez*en berri izan bazuten[26]

Handik aurrera –azpimarratu beharrik bai?–, bestelako sentsibilitate liriko-poetiko-erretoriko bat(zuk) agertu z(ir)en ustez *koplarien*ak ziren *gudu*etan.

Oro har, esan liteke sariketek lehen urteetan hartu zuten norabide ilustratu-moralak ere izan zuela eraginik aurkezteko erabakia har zezaketenen artean. Gakoa ez baitzetzan, agidanez, bertsoak era tradizionalean ontzean eta gozatzean. Ikasitakoen eta alfabetatuen ukitua eskatzen zitzaiela zirudien.

Akaso horrexegatik, parte-hartu zutenen zerrenda osatu gabekoei erreparatzen bazaie, berehala atzemango da klase *astiduna* osatzen zutenen izenak nabarmentzen direla. Medikuak, mugazainak, auzapezak, errientak... inguruetako *inteligentsia* zen bere burua poesiaren argazkian agertzeko gertu ikusten zuen bakarra. Bertsogile inuzenteren bat kenduta, jakina, Abadiak sustatzen zuen antolamendu haren ateak gero eta hertsiago azalduko baitziren *kultuen* gizartegeruzakoak ez zirenentzat.

Eta Etxahunen protestak gora-behera[27] eliz-gizonak ere prest agertu ziren ordura arte laikoentzat bakarrik gordeta zirudien bertso--lehiaketen egitura "mundutarra"-ri ekiteko. Haiei lanbidez eta bokazioz zegokien borroka erlijioso-ideologikoa burutzeko ere ezin aproposagoa zen-eta esparru hura.

Baina areago: ez gutxitan, apaizek berek eraman zuten sariketen protagonismo nagusia, nahiz eta ez beti aurreikusi zitekeena bezain erlijiosoa. Eta ez gara sariketen erabakietan berezko zuten

26 Etxahunek, esan gabe doa, ez zuen berriro parte hartu; urte berean aurkeztua zen Martin Halzuet "Ttipi Urruñakoa"-k ere uko egin zion berriz aurkezteari (eta 1855ean hil zen). Oxalde ospetsuak aurkezteko froga bat egin zuen 1859an, baina, nonbait emaitzak ikusirik (sariztatutako hainbat mediku eta apaizen ondoren baino ez baitzitzaion "aipamena" aitortu), 1868ra arte atzendu zuen hurrengo parte-hartzea. Azken bertsolari handi bat aipatzeko, gogora bedi Piarres Ibarrart jatsuarra ere ez zela 1869ra arte ausartzen hasi (31 urte zituenean); eta, dakigunagatik, esperientziak ez zion etekin zoriontsurik ekarri 1882ra arte, Sarako lehen saria eraman zuenean.

27 Ezin ahantz daiteke haren "*Jaun apphez baten da hanitch itchoussi/ Bassa kopla hountcia urguillia gati*".

gidaritzaz bakarrik ari, poemak eta bertsoak ontzeari eta lehiaketetako protagonista agertzeari hartua zioten zaletasunaz baizik. Hiribarren bera, Landerretxe "Garaztarra", Laphitz, Gorostarzu, Adema "Zaldubi", Diharasarri, Darrigol... hurrengo urteetako sariketa-katean begi bakan batzuk baino ez dira.

Jakina, sentsibilitate berri horiekin batera, Elizaren esparru hutse-koak ziruditen bertso-molde laburrak eta bertsolaritzaren eskemetatik at geratzen zirenak ere "sariketaratuak" izango ziren aurreran-tzean, herri-bertsogileen izialdurarako eta gogoko erremediorik jarri ezinean.

Hasierako espektatiben aurka, molde tradizionalak ere desplazatuta gertatzeko atakan azaldu ziren eskola-literaturan trebatutakoek lehiaketan tokia hartu zutenean. Eta nahiz eta azaleko ezaugarri zenbait iraunkor mantendu, *gudu*en ardura pertsona alfabetatuen eskuetara igarotzeak bere zerga zekarren. Lehen aldiz, literatura –gehiago ala gutxiago– landuak (imaginarioa eta irudi eta baliabide berriak, etab.) bertsogintza tradizionalaren papereratzearen balioa jarri zuen dantzan eta haren etorkizuna ezbaian. Mende erdi lehenago *ipuin onek* herri-ipuingintza jarri zuten bezalatsu.

Denborak eman ohi duen perspektibak erakutsi beharko zuen gero noraino eta zein ezaugarrirekin garatu zen ereduen arteko dibergentzia-hazi hura eta nolakoa (erregularra, gorabeheratsua, luzea, motza...) izan zuen burututako ibilaldia.

Nolanahi ere, lehen *pherxuetaco gudu* hartan bederen bazen ezin ahantzi daitekeen beste faktore garrantzitsu bat, norabide berria –gehiago batzuetan, ez hainbeste bestetan– baldintzatuko zuena. Faktore didaktiko-pedagogikoa, alegia.

Lehiaketaren xede ez literarioak egokiro burutuko baziren, ezinbestekoa zen osagai pedagogikoa jasotzea. Gizartearen alderdi moralean eragiteko, zalantzarik gabe, nahitaezkoa. Horregatik ezin zuen eginkizun didaktikoa deskuidatu lehiaketarako hautatutako gaiak: hura jorratzeak modu ia sinbiotikoan lotua zeraman haren zabalkundea, eta hura zabaltzeak baliabide egokiak premiazko.

Gaia, zehazki azalduta, honetan zetzan: antonomasiazko Montebideo hiria euskal emigranteen bilgunetzat hartuta, jakin eta jakinarazi behar zen hara zihoan euskaldunak bihotz-min eta atsekabe izugarriak izango zituela, eta hori gutxi bailitzan, gizarte-eragin kaltegarriak ere zekarzkiola horrek jaioterriari; hobe zuela, hortaz, hara ez joatea,

Euskal Herrian geratzea eta bertan familia, gizartea, hizkuntza, kultura, sinesmenak... bizirik mantentzea.

Hori ulertarazteko, esplizituki erantsi zen piezek laburrak izan behar zutela zioen baldintza (berrogeita hamar bertso-lerro, gehienez) eta tradizionala, hots, ezaguna zen *aire* batekin kantatu ahal izateko eta nahi bestetan gogorarazteko aukera eskaini behar zutela zioena (berrikuntza larregirik gabekoa, beraz, baina herrian barrena hedatzeko asmo nabaria zuena). Bestalde, sarien praktika zehatzak gero ageriago utziko zuenez, tamaina labur hartan kontzentra zitekeen ereduak modu inplizituan erakusten zuen formula narratibo-diskurtsiboek ez zutela bertan tokirik; eta are gehiago, hobe zutela formulazio "bisuala" lehenestea eta irudi ulergarri eta inpresionagarrien bidea jorratzea (zailtasun kontzeptualik eta bestelakorik ez, hortaz).

Ildo horretan kokaturik, erraz asko ulertzen da Landerretxe "Garaztarra"-ren poemaren garaipena, eta egon bide ziren amarruak gorabehera, baita Zelaberenarena ere[28] Eta, arrazoiok aintzat hartuta, baita, akaso, Etxahunenaren bazterketa ere.

Bada, azkenik, nabarmendu beharreko beste alderdi bat, gure ustez garrantzi ezin handiagoa izan zuena.

Aipatua dugu dagoeneko bertsoek, xede pedagogikoa beteko bazuten, "ulergarri" behar zutela, jende xeheak ulertzeko modukoak. Hori bai, kontzeptualki ulergarriak izateko, lehendabizi linguistikoki ulergarriak behar dute. Edo, zehatzago adierazita, linguistikoki "ulerterrazak".

Xede pedagogiko-sozialen asmoei traizioa egitea zatekeen bertso edo poema ezin ederrago bat jasotzaile zuzena behar zuen jendearentzat, hizkeragatik, arrotz gertatu izana.

Hemen jorratuko ez diren arrazoi desberdinengatik Hegoaldera ere (Elizondora lehendabizi) igaro ziren artean, Urruña-Sarako lehia-

---

28 Martin Egiategiren *Euskaldun baten bihotzminak Montebideorat juanez* bertsoak luzeragatik ere baztergarri (136 bertsolerro baititu!), badirudi oso gogoko izan zezaketela hainbat epaimahaikidek Ademaren poema (*Ameriketako bidean*): estrofa laburrekoa, jostalaria, azkarra... baina lirikoegia eta zertxobait deskonpentsatua ingurumari hartarako. Berdin gertatu bide zen Halsouet "Ttipi" bertsolariaren poematxoarekin ere; harenean oso nabarmena da emigrazioaren dramak berezko zuen alderdi sozialaren gabezia, atsekabeak eta bihozminen zamak hasieratik desorekatzen baitira ahaide hurbilen negar eta lantuen esparru soilerantz.

ketetan nekez aurki daiteke bertako hiztunentzat linguistikoki arrotza edo arraro samarra egiten den idazlanik.

Baieztatutakoa orokorkeria hutsal gisara gera ez dadin, *koplarien guduetan* irabazle suertatutakoen zerrendari begira dakioke[29]

1851n, Oxalde bidarraitarraren izena baino ez zaigu agertzen.

1852an, "Ttipi" urruñarra eta Oxalde bidarraitarra ditugu, diogun, "irabazle".

1853an, Zelabe bardoztarra eta Landerretxe garaztarra dira garaileak.

1854an, Dussaut bardoztarra (1. saria).

1855ean, Leon Elizanburu ortzaiztarra (1. saria).

1856an, Larralde hazpandarra (1. saria).

1857an, Iturbide lapurtarra (1. saria).

1858an, J.B. Elizanburu saratarra (1. saria), J. Hiriart lapurtarra (hazpandarra?) (2. saria); aipamenak: M. Arrupe urruñarra, J. Duvoisin ainhoarra, L. Elizanburu ortzaiztarra, Palassie kanboarra, A. Etxeberri saratarra, etab.

1859an, Larralde hazpandarra (1. saria), Gorostarzu ezpeletarra (2. saria), Guilbeau urruñarra (3. saria) eta P. Mendibil lapurtarra (4. saria); aipamenak: Adema senpertarra, Detxeparestu garaztarra (?), Mendiburu lapurtarra, Oxalde bidarraitarra,

1860an, J.B. Elizanburu saratarra (1. saria), Duvoisin ainhoarra (2. saria), L. Elizanburu ortzaiztarra (aipamena)

1861ean, hutsik

1862an, J.B. Elizanburu saratarra (1. saria). Aipamenak: Lapitz arizkundarra, ordurako Baigorriko bikarioa zena (1. aipamena), Garno lekondarra (2. aipamena), J.B. Elizanburu saratarra, Hiribarren azkaindarra, Larralde hazpandarra.

Etc., etc., etc.

---

29 Urkizu 1997 lanari segitu zaio ondoren datozen datuotarako. Gauzak errazteko, saridun izandakoak baino ez dira aintzat hartu, hau da, berdin lehen, bigarren, hirugarren zein "aipamena" sariekin golardatuak agertzen direnak.

Ez dago zerrenda guztian salbuespenik. 1874ra arte, irabazle guztiek Lapurdi eta Behe Nafarroa mugatuko hizkuntza-jatorria erakusten dute. Edo geografikoki zehatzago adierazita nahi bada: marra moduko batek lotzen ditu lehiakide garaileen jaioterriak, Lapurdiko itsasegitik hasita (Urruña, Azkaine), Lapurdi Garaitik (Sara, Ainhoa, Ezpeleta, Kanbo) eta Ekialdetik (Hazparne, Lekorne, Bardoze) igarota, Behe Nafarroako Ekialdera (Bidarrai, Ortzaize, Baigorri) eta Garazira iritsi arte. Horixe da lehendabizi Urruñan eta gero Saran agertuko diren hizkera nagusien habia.

Hogei urteko ibilaldi linguistikoki zentripetoaren salbuespen gisara, 1874an bizkaieraz idatzitako poema karlista bati eman zitzaion lehen saria. Bigarrena, nonbait salbuespena neutralizatzeko, Adema "Zaldubi"-ri luzatu zitzaion.

Aldaketa zirudiena, gorago esan bezala, 1879tik aurrera gertatu zen. Edonola ere, euskalki urruneko Arrese Beitia bezalako irabazle erreintzidentea kenduta, urak bere bidera itzuli ziren laster asko eta, Hegoaldeko herriren batean edo bestean ospatu lehiaketetako garaile bakanen baten salbuespenarekin, distantzia linguistikoek nekez gainditu zuten donostiar gipuzkeraren muga finkoa.

Eredu linguistikoa, beraz, erdi aldeko hizkera "ulergarriak" hobestean zetzan, hots, lapurtera eta denborarekin lapurtera-nafarrera bezala ezagutuko zena[30].

Gogoratu behar da, dena den, Abbadiak konbentzimendu handiz idatzia zuela "on n'exclura aucun dialecte, on n'en préférera aucun; les juges ne seront guidés que par l'appréciation du mérite des pensées et de la manière dont elles seront rendues" (ikus Haritxelar 1970, 451).

Halere, ordura arteko literatura idatziaren historiak pisu eskerga zuen idatzizkoa erabili behar zen esparru eta une orotan: "la littérature basque [...] dans les Basses-Pyrénées, a été rédigée presque exclusivement en labourdin aux XVIIe, XVIIIe eta XIXe siècles; étant donné le préjugé selon lequel bien parler c'est 'parler comme un

30 Handik laurogeita hamar urtera Lafittek finkatuta aurkituko zuen joerarekin bat zetorrena: "la lecture du journal *Eskualduna*, de la revue *Gure Herria*, ou des oeuvres de Abbadie, Barbier, Etchepare, Apestéguy, etc., révèle-t-elle la naissance d'une langue littéraire commune à presque tout le Pays basque continental et que l'on pourrait appeler 'labourdine', ou plus précisément 'navarro-labourdine' " (Lafitte 1944: 1978, 6).

livre', quand les Bas-Navarrais et même quelques Souletins se sont mis à écrire, ils ont pris les vieux auteurs comme modèles et ont 'labourdinisé' avec entrain" (Lafitte 1944: 1978, 6).

Eta, oharkabean bazen ere, *phersuetaco guduak* ezin ziren salbuespen izan: "La tradition continue [...] imperturbable!" erantsi zuen Lafittek.

Eta muturreko euskalkiak (zuberera eta bizkaiera)? Bada, praktikan, bazterturik geratu ziren *koplarien gudu*etatik, aipatu literatur tradizioaren gaindiezinezko indarraz gainera, "erdialdeko" euskaldunek, Abadiaren sarien hartzaile "naturalek", ahalegin asko eta handien truke baizik ez baitzituzten ulertzen[31].

Eta, ikusi denez, Etxahun bera izan zen formatzen hasitako literatur arrago berri haren pisua (beste bat gehiago, pentsatu zukeen berak!) jasan eta eraman behar izan zuen lehena.

Onartu behar da, bestalde, barkoxtarrak egiten zuen zubereraren erabilera edo, nahiago bada, idazteko baliatzen zuen hizkera pertsonala ere aski urrun gelditzen zela ordurako Lapurdi eta Behe Nafarroako euskalkietan finkatua zuten idatzizko tradizio landu, aberats eta, estilistikoki, depuratutik. Harekin konparatuz, Etxahunenari (ahozko formuletatik hurbila: fonetismoak, kontrakzioak...) ibilaldi luzea falta zitzaion eredu normaldu eta kultu gisara agertu ahal izateko.

1853ko *Koplari-gudu*an, beraz, faktore garrantzitsu asko izan zituen Etxahun bertsolariak aurka.

Gehiegi, nonbait, irabazle gertatu ahal izateko.

Behar baino gehiago, edonola ere, "Uskal Herriko poeta famatu" izatera iristeko.

Aramaion, 2012ko urriaren 12an.

---

31 Etxaideren *Joanak joan* eleberria irakurtzea besterik ez dago horretaz jabetzeko: Etxahunen bertso guztiak gipuzkeraz –edo "gipuzkera osotuan", edo "gure euskaran", edo "itzulirik"– emanak daude, hizkuntz eragozpenik gabe segi diezaion irakurleak nobelaren hariari. Eta aitortzea bera hitsa zaigun arren, hizkuntza-arazo horren paralelismo moduko bat aurki daiteke berriki estreinatu den zuberera hutsezko film baten ibilaldi laburrean ere: Zuberoan izan ezik, ia zeharo ulertezina gertatu da proiektatu den euskal leku gehienetan.

Bibliografia

Andiazabal, P., 1992, "Nor zen Ttipi urruñarra", *Euskera* 37, 65-75.

Arbelbide, X., 1987, *Piarra Topet Etxahun. 1786-1862*, Donostia.

Errasti Oregi, B., 2006, "Lore-Jokoak: 1853-1917", in B. Fernandez eta I. Laka (arg.): *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, Bilbo, 307-326 or.

Etxaide, J., 1955, *Joanak-joan*, Zarautz.

Haritxelar, J., 1969, *Le poète souletin Pierre Topet-Etchaun (1786-1862). Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXe siècle*, Baiona.

_____, 1970, *L'oeuvre poètique de Pierre Topet-Etchahun*, Bilbo.

_____, 1983, *Etxaun Barkoxeko*, Donostia.

Hiribarren, M., 1853: 1991, *Montebideoko berriac*, Baiona (orain: Urkizu 1991, 543-584).

_____, 1853: 1979, *Eskaldunac*, Baiona (edizio faksimila: 1979, Donostia).

Laffite, P., 1944: 1978, *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin littéraire)*, Donostia.

_____, 1970, "Pierre Topet-Etxahun (1786-1862)", *Gure Almanaka*, Baiona (orain: P. Lafitte, *Euskal Literaturaz*, Donostia, 1990, 169-183).

Lhande, P. eta Larrasquet, J., 1946, *Le poète Pierre Topet dit Etchahun (1786-1862) et ses oeuvres*, Baiona.

Michel, F., 1857: 1983, *Le Pays Basque. Sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, Donostia

Mitxelena, K., 1964, *Textos arcaicos vascos*, Madril.

Urkizu, P., 1991, *Bertsolaritzaren Historia II. Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. 1545-1900,* Donostia.

_____, 1997, *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma. 1851-1897*, Donostia.

Xarriton, P. eta Urkizu, P., 1997, "Koplari zenbaiten bizitzaz eta bertsoez ohar labur batzuk", in Urkizu 1997, 419-428.

ERANSKINAK

Bernard Zelabe

Entzunik espantutan Indien berria

(Airea: *Atarratze jauregian &,* edo:
Mendian zoin den eder & edo bertze hanitz)

1.- Entzunik espantutan Indien berria,
Beldurtu ere gabe ote den egia,
Montebidorat noa zenbait urterentzat,
Aisia bildu nahiz azken egunentzat.

2.-Ez naukan hainitz herritik joaitea,
Guti nakien zer zen negar egitea,
Untzirat noanean orai dut sentitzen
Damuaren eztena bihotzean sartzen.

3.- Bertz-aldiz zihoazkigun irritan egunak,
Tristerik orai ditut aldean lagunak,
Adiotarat zaizkit nigarrez hurbiltzen,
Iduri naiotela betikotzat hiltzen.

4.- Sorlekuan nituen esteka guztiak,
Ez dakit handik urrun zer daukan biziak,
Adios erraiten herri maiteari,
Bihotza zaurtua, naiz eman nigarrari.

5.- Diruaren goseak etxetik narama,
Utzi behar dut aita, utzi behar ama,
Segurantzarik gabe nihoiz bihurtzeko,
Iragan atseginak berriz kobratzeko.

6.- Lur atzean zuhaitza laster iraungitzen,
Desterruan gizona gazterik zahartzen,
Han galdeturen beti herria bihotzak,
Eskasa ez beteko irabazi untzak.

7.- Desterruan non kausi herriko mendiak,
Aiten egin ederren lekuko handiak?
Ohitu ezkila ere ez dut adituren,
Bozkariorat ez nau bestetan deituren.

8.- Desterruko bidean erortzen denari
Lagun onik etzaio agertzen sokorri,
Eritzean ez duke amaren artarik,
Hil daiteke inguruan nihor gabetarik.

9.- Adios, Eskual Herri hanbat onetsia,
Hire zerua zaitak ezin ahantzia,
Uzten darozkitziat maite ditudanak,
Etor bahi, aita-amak, haurreko lagunak.

10.- Noizbait ahanzten badut ene ama ona,
Beldur ez nadin etor, nigarrez dagona,
Ahanzten badut aita, ahanzten herria,
Nihoiz ez bekit mugi ahoan mihia.

11.- Urrun, Jauna, niganik, otoi, zorigaitza
Hustua kausitzeko aita-amen egoitza!
Aitzitik egidazu bihur nadin laster,
Eta goza ditzadan luzaki zuri esker.

Landerretxe "Garaztarra"
Nahi nuen kantatu

(Airea: *Bizirik naiz baina ez…*)

Epigraphe
La Makhila, objet utile,
Soit dans les champs, soit à la ville,
Passe encore,Mais l'once d'or
Est un trésorDes plus minimes
Pour un gueux troubadour
Qui ne vit que de rimes

1.- Nahi nuen kantatu,
Alegera partitu,
Bainan, zer bihotz mina
Ene baitan da piztu?
Ene bihotza nola,
Nola daite kontsola? (bis)

2.- Norat hoa, untzia,
Norat utziz Frantzia?
Norat hola deramak,
Orai ene bizia?
Ene bihotza nola,
Nola daite kontsola? (bis)

3.- Bagoazi tristeki,
Ameriketan kausi,
Ustez gure gozoa:
Esperantza zoroa!
Ene bihotza nola,
Nola daite kontsola? (bis)

4.- Zerek nau liluratu?
Hola zerk enganatu?
Egiazko onak utzirik,
Itzala dut hautatu!
Ene bihotza nola,
Nola daite kontsola? (bis)

5.- Euskal Herrian sortzen,
Ameriketan hiltzen,
Oi, zer zorte dorpea
Orai dutan bilatzen!
Ene bihotza nola,
Nola daite kontsola? (bis)

6.- Euskal Herri maitea,
Herri paregabea,
Hiltzea da neretzat
Hi gabe bizitzea!
Ene bihotza nola,
Nola daite kontsola? (bis)

7.- Adios, ama maite,
Galtzen zaitut zu ere,
Ni zugandik urrunduz
Zenbat biziko zare?
Ene bihotza nola,
Nola daite kontsola? (bis)

8.- Egin dudan botua
Baldin betetzen bada,
Laster itzuliko naiz,
Am'ona, zuregana.
Ene mina bertzela,
Nola daite kontsola? (bis)

Pierre Topet, "Etxahun"

Montebidorat juailiak

1.- Bi berseten huntzeko denbora
dut hartzen,
Uskal Herri guzian nahiz kanta ditzen;
Montebidorat dira hanitz abiatzen,
Bere kartiel huna beitie kitatzen
Eta gaiztuaguan fortuna txerkatzen.

2.- Hau da uskaldunaren sistima tristia:
Urrunian beitie bere sinestia,
Ustez aisago egin han aberastia,
Deus eztien lekian, zer aperentzia!
Hori da arrantzura larrerat juitia.

3.- Sujet falsu elibat jiten zaitze hanti,
Nahiz jente erostez zerbait irabazi;
Gero haiek laidatzen herria azkarki,
Nahiz ahal bezainbat eraman hebenti;
Bere fortunak behar hek egin sinpleki.

4.- Aita etamer deitze haurrak galerazten
Hasten zaitzen puntian zerbaiten egiten;
Ustez fortunen txerka dutie igorten,
Beren etxen beharrak beiteitze emaiten;
Haurren gaizki ezartez, berak
gaizki jarten.

5.- Aitama hurak dira ezarten nigarrez,
Haurrak haboro ikus eztitzen beldurrez;
Trete hek hitz emaiten kuntu
hartzera hez;
Lehen etzeizkitzenak salerazi urrez
Salerazitzen deitze ordian gezurrez.

6.- Haur gaxo hurak dira itsasuan sartzen,
Bere galerazliak gidatako hartzen;
Montebidora ordun, gero hek kitatzen;
Ordian hasten dira bihotz min egiten,
Zeren bere aitamak kitatu zutien.

7.- Gure aita eztia, zure haurregati
Odola ixurtera zunikina utzi:
Guk dugun estatia untsa bazeneki,
Fi gasto egiteko bazunuke aski
Gu traditu gutien traidore hegati.

8.- Gure ama trendia, guk utzia etxen,
Gure abiatzian bihotz min egiten:
Egun gure plainiak bazuntu entzuten,
Nula zure utzia dugun deitoratzen,
Nahigo guntukezu ikusi ehorzten.

9.- Ezin biziz girade, jarririk esklabo,
Etxen guntialarik guk beharrak oro;
Anaiak girade ezarri soldado;
Arreben estatia, aldiz, tristiago,
Haren aipatzia zait haien partez laido.

Bi berseten egitez

1.- Bi berseten egitez nahi dut kuntatu
Apezek nula tien koblarik trunpatu;
Kantore egitez gutie manatu,
Nahiz Montebidorat juailiak desgutatu,
Eta prima hitzaman hobenari paku.

2.- Bersulariak oro ginandian ari
Kantore konposatzen, nahiz prima hori.
Apezak beikuntian gero hen jujari;
Gure berset hobenak hek beren ezarri
Eta hitzaman prima eraman guri.

3.- Jaun apez abil haiek zer dire pensatu?
Guri hatzaman koblak besteri zeditu;
Intertan hek hatzaman ordian bi paku,
Uskal Herriko lehen poeta famatu
Sekula berset bat ezin dina formatu.

4.- Prima eraman duzun jaun apez adreta
Eta zu famaturik ezarri poeta,
Zuberuko haurrekin ez koblakan joka,
Ezi hurak eztira zirekin gal lotsa,
Bazinandie ere biak Arxipretra.

5.- Etxahon Ziberuan, Atilo Lapurdin,
Buruzagi direnak kantore egitin,
Ezpeikirade beldur apezik jin dadin
Eraman deikienik hartan Uskal Herrin;
Jokaturen deregu hek plazer direnin.

6.- Jaun apez baten da hanitz itsusi
Basa-kobla huntzia urguiliagati.
Kantika egitia lizate hen propi;
Hartako bazunie espiritu aski
Ordian zunukie bai prima merexi.

7.- Prima dian apeza eztut izentatzen,
Non daguen erretor, ez non sorturik den;
Bena bai Elizalat duenian, erraiten,
Has dadin hobeki han peredikatzen,
Ezpeitu poeta denez erakusten.

8.- Zelabe Bardozeko apez arnegata,
Apezek gure koblak zuri eman eta
Jarri izan zira koblarien aita,
Bena janen zunin gizenago zopa
Hartu uken bazunin haiek dien plaza.

9.- Harriet zu zirade seminarin jabe,
Bena etzirade hun koblarien juge.
Jujatu beitutuzu zuk bersetak hobe
Xainku zirenak, arrimurik gabe,
Hen egilik beitziren zure adiskide.

10.- Berset hoiek egin tut jaun apezen kuntre,
Nahi bada debotak dutudan net maite:
Bena arropa hura dinak behar luke
Erokeriak utzi, uken karitate,
Mundiri erakutsi ukeiten bertute.